

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Desadostasuna Nafarroako Alderdi Sozialistaren Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko proposamenarekin

Eskatzen du subjektu pasiboa finantza-erakunde mailegatzailerak izan dadila, eta, ez, Gobernuak proposatzen duen eran, pertsona edo erakunde mailegu-emailea

Asteazkena, 2018.eko azaroak 21

Foru Gobernuak gaurko bileran erabaki du Nafarroako Alderdi Sozialistaren talde parlamentarioak aurkeztutako Foru Legearen proposamenari desadostasuna agertzea, *Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren* testu bategina behin-behinean aldatzeko. Nafarroako Alderdi Sozialistak eskatzen du finantza-erakunde mailegatzailerak izan dadila subjektu pasiboa. Gobernuak, aldiz, iritzi du zuzenagoa eta argiagoa dela berak aurkeztutako testua, hobeto zehazten duelako pertsona edo erakunde mailegu-emailea dela subjektu pasiboa. Erantsi du 'finantza-erakunde' terminoa oker dagoela, mailegu-emailea edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daitekeelako, eta ez soilik finantza-erakunde, berme-mailegu gehienak haiek ematen badituzte ere".

Gainera, lege-proposamenak ez ditu orain arteko mailegu-hartzailearen nortasunaren araberrako salbuespenak jasotzen, Estatuan onartutakoaren eta Nafarroako Gobernuak onartutako proiektuaren ahanztura edo gabezia eraginez. Bestalde, Sozietateen Gaineko Zergan ez du mugatzen mailegu-emaileek *Egintza Juridiko Dokumentatuengatik ordaindutako kuoten kengarritasuna*.

Azkenik, Nafarroako Zerga Ogasunak adierazi du Nafarroako Alderdi Sozialistaren lege-proposamenean gabetasun bat dagoela kreditu-kooperatibei dagokienez. Hain zuzen, kreditu-kooperatibak *Egintza Juridiko Dokumentatuetatik* salbuesita daudela jasotzen dituzten maileguetarako, eta, ondorioz, arauan zehaztu beharko litzatekeela (*horrela geratu da jasota Nafarroako Gobernuak onartutako lege-proiektuan*) aurrerantzean ematen dituzten maileguetan, gehiengoetan, ez dutela salbuespen hori edukiko.

Gogoratu behar da azaroaren 14an Foru Gobernuak aurreko legearen 21. eta 35. artikulua aldatzen zituen Foru Legearen proiektu bat onartu zuela. Eta 21. artikuluari dagokionez ezartzen duela berme-maileguak eratzeko eskriturak direnean, zergaren subjektu pasiboa pertsona edo erakunde mailegu-emailea izango dela.